

euskararen
berri-papera

eb

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

Doako harpidetza:

Papera: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia kalea, 1 - 01010 VITORIA -GASTEIZ

Tel.: 945 01 69 44 | berri-papera@ej-gv.es**Bertsio digitala:** www.euskara.euskadi.net/berri-papera

SAKONEAN

01|02

BERRIAK

03

MOTZEAN

04



WIKIPEDIA
Entziklopedia askea

Euskarazko wikipediari bultzada

Euskararen erabilera esparru guztietan sustatzeko, ezinbestekoa da herritarrei baliabide eta tresnak ematea, teknologia berrien arloan bereziki. Testuinguru horretan kokatzen da 2011n Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko eduki entziklopedikoak sarean jartzeko garatutako egitasmoa. Hasieratik, Eusko Jaurlaritzaren nahia izan da egindakoari lotzea. Horra hor, Eusko Jaurlaritzarenak ziren eduki entziklopediko interesgarriak, *Lur Hiztegi Entziklopedikoa* eta *Lur Entziklopedia Tematikoa* hain zuzen. Horregatik egoera aztertu ostean, Kultura Sailak erabaki du jabetzan dituen jatorrizko eta egokitutako euskarazko edukiak Wikipediaren bidez sareratzea. /02

Kultura Sailak euskarazko edukiak sareratu ditu Wikipedian



EGITASMOA ABIAN JARRI
AURRETIK, OHIKO ENTZIKLOPEDIA
DIGITALEZ GAIN, SAREAN DAUDEN
EGITASMO ZABALDUENEKIN
ETA BERRITZAILEENEKIN
ELKARLANERAKO BIDEAK ERE
AZTERTU DIRA. AZTERKETA BURUTU
ONDOREN, KULTURA SAILAK
ERABAKI DU EGOKIENA DELA
JABETZAN DITUEN JATORRIZKO
ETA EGOKITUTAKO EUSKARAZKO
EDUKIAK WIKIPEDIAREN BIDEZ
SARERATZEA.

W

ikipedia aukeratzearen arrazoiak honako hauek dira: irtenbide teknologiko egokia, azkarra, erabilgarria eta merkea delako; lana egiterakoan, parte-hartzea, osagarritasuna, elkarlana eta lankidetzatza sustatzen dituelako eta Wikipediaren aukera eduki libreen aldeko filosofiarekin bat datorrelako, Kultura Sailak bultzatu nahi dituen lerroekin.

Esan bezala, *Lur* entziklopediak erabili dira abiapuntu gisa, eta horietatik 11.000 sarrera hautatu dira; horietatik 8.500 gaur egun euskarazko Wikipedian ez daudenak dira, eta 2.500 lehenik zeudenak, baina berritutakoak edo eguneratutakoak. Sarreretatik %20 Euskal Herriari buruzkoak dira, eta %80 eduki unibertsalei lotutakoak. Lana aurrera eramateko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Elhuyar Fundazioa kontratatu zuen lehiaketa publiko bidez. Elhuyarrekin batera hainbat euskal wikilari izan da lanean. Oinarritzat hartu beharreko materialek 20 urte baino gehiago dituztela kontuan izanda, lantaldeak, beharrezkoa izan denean, hautatutako sarrerak egokitu, zuzendu eta eguneratu egin ditu.

Ekimen horri esker, Wikipediaren euskarazko edizioak 110.000 sarrera baino gehiago ditu 2011ko abendutik. Europatik atera gabe, euskarak baino askoz hiztun gehiagodituzten hizkuntza batzuk (grekoa eta letoniera, kasu) ez dira kopuru horretara hurbiltzen. Teknologia berriak eragin onuragarria izaten

ari dira euskararen berreskurapenean. Horregatik, Jaurlaritzak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiaei garrantzi handia ematen die Euskararen Aholku Batzordearekin batera prestatzen ari den Euskara Sustatzeko Ekintza Plan berrian eta urteroko aurrekontuetan.

EKIMENAREN NONDIK NORAKOAK

Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak hau adierazi zuen: "Sailburuordetzaren asmoa eduki digital horiek euskaldun guztiek erabili ahal izatea da, baina gure lehentasuna ikasleak dira. Euskal Herrian, hezkuntza-maila guztietako ikasleek beste hizkuntza batzuetan (berezi gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez) idatzitako testuak itzultzen luzaz eta esfortzu handiz jardun behar izaten dute. Euskaraz sortutako material gehiago behar dugu. Uste osoa dut gai garestu kalitateko euskarazko entziklopedia digitala sortzeko. Amets dudan entziklopediak orotarikoa izan behar du, baina euskararen eta Euskal Herriaren gaineko sarrerek toki berezia izan behar dute. Haurrak eta nerabeak erakartzeko, irudiek eta lan grafikoei garrantzi handia izango dute. Hori da Eusko Jaurlaritzaren eta Wikipediaren nahia eta horretan ari gara".

Teknologia berrietan euskararen erabilerari dagokionez, berriaz, hau esan zuen: "Aro digitalak aukera paregabea ematen digu informazioaren demokratizazioan aurrera egiteko. Orain ez da beharrezkoa prentsa edo telebista inperio bat besteengana iristeko. Nork bere bloga sortu dezake. Edo gizarte sareetan bere iritzia adierazi. Eta, hemendik aurrera, non-nahi egonda ere, errazago izango du gai bati buruz dakiena beste batzuekin euskaraz partekatzea. Iparragirrek iragarri zuen bidetik, euskara lau haizeetara eta bost kontinenteetara zabaltzeko".

Herritarrari euskaraz zerbitzurik onena emateko jardunaldia



Logoak berak irudikatzen duen bezala, HPSk jardunaldi honen bitartez ateak zabaldu nahi dizkio euskarari Sozietate Publiko eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetan ere bere tokia duela bermatzeko. Horretarako, inplikaturako erakunde guztien lankidetzaren beharrezkoa da, denen artean herritarrari zerbitzurik onena emateko gai izan daitezen.

Jardunaldi honek elkarlanerako abiapuntu izatea du helburu. Goiz eta arratsalde bateko lan-saioan, aukera egongo da elkar ezagutu, esperientziak partekatu eta arlo honetan dabilzanen beharri-



EUSKARA ENTITATE PUBLIKOETAN

izeneko jardunaldia egingo da otsailaren 2an Arabako Teknologian, Miñanon, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatutarik.

nak, iritziak, ideiak eta proposamenak jasotzeko. Horrela, aurrerantzean etorriko diren eskakizunei aurre egiteko pausoak zehaztuz joango dira, batez ere datorren plangintzaldiari begira.

Aurreikusitako programa

Lan-saioa hiru atal nagusitan banatuko da: teoria, talde-lana eta esperientzia praktikoa. Goizeko lehen orduan, euskara eta entitate publikoen inguruko marko teorikoa definituko da: arlo honi eragiten dion araudia zein den, erabilera planak nola gauzatzen diren eta zein baliabide dauden, hain zuzen ere. Atsedean tartearen ondoren, berriz, talde dinamika baten bidez, bertarututako iritziak eta premiak jasoko dira, aurrerantzean jarraitu beharreko lan-lerroak finkatzerakoan kontuan hartuko direnak.

Bazkaria ere lan-saioen barruan antolatu da, parte-hartzaileek elkar ezagutu eta era informalean esperientziak partekatzeko aukera izateko asmoarekin. Jardunaldiak amaitzeko, arratsaldean, zenbait erakundek beraien esperientziak eta martxan jarri dituzten ekimenak emango dituzte ezagutzera.

Lan lerroak

Erakunde bakoitzaren izaera, abiapuntua, beharriak eta baliabideak oso desberdinak diren arren, apurka-apurka denei egokitu eta baliagarri izan dakizkiekeen lan lerroak zabaltea da HPSren nahia. Horrela, modu honetan, erakunde hauetan euskararen presentzia sustatzeko behar diren baliabideak, laguntza eta aholkularitza eskura jarri ahal izateko.


Sozietate Publiko eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko guztietako arduradunei luzatuko zaie jardunaldian parte hartzeko gonbidapena, baita interesa duten beste erakunde batzuetako euskara teknikariei ere. Horrekin lotuta, jakitera eman dute jardunaldia euskaraz izango den arren, aldibereko itzulpen zerbitzua izango dela behar duen guztiarentzat.

Ireki atea euskarari!

Erakundeen arteko lankidetzarekin, herritarrari zerbitzurik onena emateko.

Jardunaldiari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, jo <http://tinyurl.com/7wwozng> webgunera.

HPSren 2012ko aurrekontua



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2012rako aurrekontuak ia 50 milioi eurokoak dira (49,6). Honako hauek dira partida esanguratsuenak:

1. HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea): 30 milioi eta erdi euro.
2. Diru-laguntza deialdiak (Euskalgintza, Hedabideak, IKT, LanHitz eta EPBN): ia 11 milioi eta erdi euro.
3. Zenbait erakunde eta elkarterekin sinatutako hitzarmenak: ia bi milioi eta erdi euro. Hona hemen elkarte eta erakunde horietako batzuk: Euskaltzaindia, Labayru, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Galtzagorri, UEMA, EUDEL, Euskara Kultur Elkargoa, EIZIE, Topagunea, British Council Fundazioa, Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedra, Euskararen Erakunde Publikoa, Euskal Kultur Erakundea eta ONCE.

Aurten, bestalde, iraganean HEHOBIA (Hedabideetako Hobekuntza Azterketak) izenez ezagutzen zen deialdia desagertu egin da. HEKIBE (Hedabideen Ekimen Berritzaileak) izeneko lan ildoak jarri da martxan, eta horretarako 175.000 euroko partida dago aurreikusita.

Euslinux-en bertsio berria deskargatzeko eskuragarri

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak software libreko Linux Debian sistema eragilea eguneratu eta jarri du deskargatzeko moduan Euskara webgunean, hain zuzen euskarazko softwarea deskargatzeko atalean.

Horrez gain, komeni da gogoraraztea orain dela hilabete batzuk, software libreko OpenOffice.org 3.3.0 bulegotika edo ofimatika paketearen euskarazko bertsio eguneratua ere jarri zuela Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak erabiltzaileen esku, atal berean. Aipatutako produktuak www.euskara.euskadi.net/euskara_sof loturatik deskarga daitezke.



Dagozkion itzulpen-lanak Elhuyarrek eta UZEIk egin zituzten; lokalizazio-lana, Zundan enpresak; koordinazioa, EJIk; eta itzulpenen gainbegiratze-lana, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

HPSK EUSKARAZ IDATZITAKO DOKTOREGO TESI DIGITALIZATUAK KONTSULTAGAI DITU WEBGUNEAN



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) 2007an sinatu zuten lehen kontratua euskaraz idatzitako 65 doktorego-tesiren gaineko ustiapen-eskubi-deak on line jartzeko.

Geroztik, urtero tesi berriak batu ditu ekimen honen, eta gaur egun 202 tesi daude kontsultagai www.euskara.euskadi.net/tesiak helbidean. Las-ter, 2011n eskuratutako beste 32 tesi gehituko zaizkio corpusari.

Tesiak EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko unibertsitate hauetan aurkeztutakoak dira: Euskal Herriko Unibertsitatean, Deustuko Unibertsitatean, Mondragon Unibertsitatean, Bordeleko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

Zenbait irizpideren arabera egin daitezke bilaketak webgunean: besteak beste, egilearen, gaiaren eta unibertsitatearen arabera. Intereseko tesia hautatu ostean, irekitzen den fitxan hiru aukera eskaintzen dira: deskribapena argitalpenaren informazio orokorrarekin; tesiaren laburpena euskaraz eta ingelesez; eta dokumentua bera PDF formatuan.

Horrez gain, interfazeak beste baliabide interesgarri batzuk ere eskaintzen ditu. Horien artean, honako hauek nabarmenduko genituzke: Euskal-term eta hiztegiak kontsultatzeko aukera, tesiak biltzen dituzten beste datu-base batzuk eta unibertsitateen estekak.

Hiru hiztegi terminologiko berri



Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzorde-atalak 2011n onartutako hiru hiztegi terminologiko argitaratu berri ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak: *Musika Hiztegia*, *Zenbakizko Kontrolaren Hiztegia* eta *Saskibaloia Hiztegia*. 2008tik Terminologia Batzordeak onartu dituen 23 hiztegi terminologiko argitaratu ditu HPSk. Horiek guztiak Euskal-term Terminologia Banku Publikoaren www.euskara.euskadi.net/euskal-term helbidean kontsulta daitezke.

